

Martxoak 15, 2018

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irungo

# Numero

321

**“Dirudiena baino askoz  
zabalagoa eta aberatsagoa  
da gitarraren mundua”**

ANE ENCABO, gitarra jotzailea

- 2** Irun atzo Irun Gaur
- 3** Berria -Martxoak 8
- 4-5** Wordpress bilgunea
- 6** Elkarrizketa: Gorka Moreno
- 7** Agirretxetarek omenaldia jaso dute
- 8-9** Kirolak: Erroibide
- 10** Kolaborazioa: Gorka Martinez
- 11** Haurren leihoa
- 12** Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Ane Encabo
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda

## ELGORRIAGA AYESTARÁN, FRANCISCO



REF: G1497

Enpresaria. Irunen jaio zen 1890ean. Aitaren txokolate negozioari bultzada eman zion. Gabriel Elgorriaga XIX.mendean hasi zen txokolate artisaua ekoizten, Larretxipi kaleko lokalean.

1923an, D<sup>a</sup> Josefa Ayestaranek, Gabriel Elgorriagaren alargunak, lehen fabrika eraiki zuen Mendibilen. 1931n handitu zuten lehen aldiz, eta 1953an berriro. Urte hartan, urrezko txanpon famatuak ekoizteari ekin zion Elgorriagak. Irungo Udalak baimena eman zuen, txanpon horietan Irungo armarrria ager zedin.

1950ean, fabrikak 500 langile zituen. Francisco Elgorriaga 1982an zendu zen. José Miguel semeak jarraitu zuen negozioarekin, baina istripu batez hil zen 1985ean. Enpresak 1997an itxi zituen atea.



REF: G23137

**Iturria: Agustin Morate.**  
*Irun y sus gentes.*

## IRUNERO

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena  
Unai Oiartzun

**Euskara zuzentzilea:**

Unai Oiartzun

**Publizitatea:**

Sonia Garcia Olazabal  
Amaia Terrazas  
Ion Otxoa

**Diseinua eraberritzea:**

Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L

**ISSN:**

1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943 04 20 52

**Wegunea:** irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:





# Mobilizazio jendetsuak izan dira martxoaren 8an



Berezia izan da aurtengo martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna. Mundu mailako emakumeen greba deitu du mugimendu feministak, zaintzan, kontsumoan, ikastetxeetan eta lan-arloan. Emakumeek planto eginez, sistema geldiaraztea eta ondorengo hausnarketa bultzatzea izan da asmoa. Deialdiak arrakasta izan du, eta leku askotan inoiz ikusi gabeko mobilizazioak eragin ditu. Mugarrria ezarri dezake aurtengo martxoaren 8ak.

Behe Bidasoa eskualdean, erakundeekin loturarik ez duten zenbait eragilek antolatu dituzte mobilizazioak. Egurdiko manifestazioan 8.000 lagun bildu dira, udaltzainen arabera. Adin, lanbide, ideologia eta jatorri ezberdinetako jendea elkartu da, berdintasunaren aldeko aldarriarekin bat egitera. Irungo San Juan plazan hasita, hiri erdia zeharkatu du manifestazio jendetsuak. Emakumeek bizitzako hainbat arlotan jasan behar izaten duten diskriminazioa salatu dute antolatzaileak: "Emakumeok zapaltzen eta menderatzen gaituen sistema heteropatriarkala irauli behar dugu".

Aurtengo martxoaren 8ra iristeko egindako lana azpimarratu dute: "Prozesua modu ireki eta deszentralizatu batean egin dugu, aniztasuna oinarri, talde eta norbanako askorekin elkarlanean: belaualdi, jatorri edota kultura politiko ezberdinetakoak, talde feminista zein eragile sozial edo sindikaletakoak". Aurtengo martxoaren 8an arnas berria lortu du mugimendu feministak, eta aurrerarik gabeko olatu more erraldoia eragin du. Martxoaren 9tik aurrera hura elikatzen jarraitzeko lan egin beharko da, hemendik aurrera.

  
**ANTXETA**  
**IRRATIA**  
 90.5 / 89.7 FM

Anaka kalea, 11  
 IRUN  
 943.61.54.57

  
**TABISA**  
 TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49  
 HONDARRIBIA  
 943.64.54.57



**BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN**



# WordPress bilgunea izango da Irungo Palmera-Montero

WordCamp Irun jardunaldiak antolatu dituzte,  
ekainaren 2 eta 3rako

**“Ezin dugu ahaztu software libreko  
proiektua dela WordPress, erabilt-  
zaileen komunitatearen parte hartze  
altruistari esker garatzen dena”**

**“Denon artean, programa indartsua  
lortu dugu, oso eraginkorra, doakoa  
dena eta edozertarako erabil  
daitekeena”**

Pablo Moratinos, online marketing aholkularia

**Urte bete darama Irungo WordPress taldeak martxan. 50 erabiltzaile inguru elkartzen dira hilean behin, WordPress programaren bidez web guneak sortzen eta garatzen lortu duten esperientzia eta ezagutza elkarbanatzeko. 2018ko ekainean, beste urrats bat emango dute. WordCamp Irun jardunaldiak antolatu dituzte, bi eguneko topaketak, ekainaren 2-3ko asteburuan, Palmera Montero gizarte zentroan.**

Bilbokoa da EAEn orain arte egin izan zen WordCamp topaketa bakarra. Bertan egon zen iaz Pablo Moratinos online marketing aholkulari irundarra. "Hura ikusita, Irunen antzeko zerbait sortzeko gogoia piztu zitzaidan", azaldu du. Irun WordPress Meetup taldea eratzea izan zen lehen urratsa. Orain, dagoeneko komunitate zabala eta jarduera egonkorra dituztenean, WordCamp-a antolatzeko erronkari heldu diote. Mundu mailan egiten diren beste WordPress topaketen formatu eta egitura klasikoa edukiko ditu. Baina Irunen egiteak, meritua duela uste du Moratinosek: "2018an zazpi WordCamp egongo dira Espainiako estatuan. Gainerako seiak, probintzietako hiriburuetan".

Bi jardunaldi izango dira. Lehenengo, hitzaldiei eta tailerrei eskainia. 20 bat egongo dira, web industriaren inguruko gai ezberdinei buruzkoak. Hitzaldiak irekiak dira, eta edonork proposa ditzake gaiak, apirilaren lehenera arte. "Guk hautaketa bat egingo dugu, kontuan hartuta, batez ere, bertako komunitatearen interes nagusiak zeintzuk diren", azaldu du Pablo Moratinosek: "Kontuan hartuko dira gaia, aurkezpenaren kalitatea, eta hizlariaren esperientzia ere bai". Bertako hizlarietako leku berezia egingo die WordCamp Irun-ek, baina kanpokoak egongo dira, eta estatu mailan erreferente diren batzuk ere bai. Dagoeneko jaso dituzte zenbait proposamen interesgarri.

Bestalde, parte hartzaileen arteko elkarreragina sustatuko dute, networking jardueren bidez. "Bezeroak edo negozio baterako kideak bilatu nahi dituen jendearentzat oso ondo dago hori", nabarmendu du Moratinosek: "Estatuko web zerbitzuen hornitzaile nagusiak ere egongo dira". Contributor Day da bigarren egunaren izena. Lan jardunaldi bat izango da, WordPress proiektuarekin kolaboratzeko moduen berri ematea helburu izango duena. "Ezin dugu ahaztu software libreko proiektua dela WordPress, erabiltzaileen komunitatearen parte hartze altruistari esker garatzen dena". Kode irekia garatzen edo WordPress itzultzen ikasiko dute parte hartzaileek, adibidez.

Palmera-Montero gizarte zentroan izango da WordCamp Irun, ekainaren 2an eta 3an. Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan aritzeko aukera eskaini die kokapenak antolatzaileei: "Guretzat oso interesgarria da, MU entitate garrantzitsua delako hirian. Gainera, enpresaritzaren munduarekin lotutako ikasketak eskaintzen dituzte, eta guk negozio orientazioa eman nahi diogu ekimenari". Horrenbestez, harremana naturala izan dela azpimarratu du Moratinosek.

#### **Irungo WordPress komunitateari buruz**

Talde aktiboa da Irun WordPress Meetup. Hilean behin egiten dituzte bilerak, Palmera-Montero gizarte zentroan bertan. 20-60 lagun artean

biltzen dira bilera bakoitzean, normalean. "Bi deialdi egiten ditugu, goizez bat eta arratsaldez bestea, egoera profesional eta pertsonal ezberdinetan dagoen jendeak parte hartu ahal izan dezan", argitu du Pablo Moratinosek. Hurrengo saioan, adibidez, WordPress erabiltzaile online denda bat nola sortu ikusiko dute.

Enpresa txikiak dituen jende asko dago komunitatean. Horregatik, SEO edo bilatzaileetako posizionamendua, online marketing-a eta web gunea eta sare sozialak lotzea izaten dira interes handiena sortzen duten gaiak. "Gaur egun nahiko erraza da web gune bat sortzea eta sare sozialetan presentzia edukitzea. Baina askotan, jendeak ez du baliabiderik presentzia hori behar bezain aktiboa izan dadin", aipatu du Moratinosek.

#### **WordPress-en arrakasta**

Gaur egun, sareko web gune guztien %30 dira WordPress-ekin garatuak. Pablo Moratinosek uste du komunitate guztiak egin duen lanari esker erdietsi duela lorpen hori: "Arrakastaren gakoak da software librea dela, kode irekikoa. Edonork dauka sarbidea, eta hobekuntzak egin ditzake. Denon artean, programa indartsua lortu dugu, oso eraginkorra, doakoa dena eta edozertarako erabil daitekeena".

Doakoa, irekia, irisgarria eta erabilerraza izateaz gainera, WordPress segurua ere badela baieztatu du Moratinosek: "Edozein segurtasun arazo publiko egiten da segituan, eta milioika lagun jartzen dira lanean, momentu horretan, arazo hori konpontzeko. Oso segurua da, beraz". Nabarmendu, bestalde, tokian-tokiko bertsioak dituela WordPress-ek. Baita euskarazkoa ere.

ESKATU ZURE AURREKONTUA

943 90 34 50



**bertako**  
Igo-gailuak | ascensores

www.bertako.eus  
info@bertako.eus

Zure aurtengo mantenu kuota

**%40 raino** aurrezteko aukera

daukagu zuentzat



**GORKA MORENO, Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria:**

## “Zuri aberats baten edo beltz aberats baten artean, jende askok zuria nahiago du”

Testuinguru ekonomikoarekin estu lotuta egoten dira migrazio fluxuak. Horrela, 2.000. urtearen inguruan, immigrazio ugari jaso zuen Euskal Herriak. Aitzitik, azken urteotako krisi ekonomikoarekin, fluxua baretu egin da. Migranteen inguruko zenbait aurreiritzi eta estereotipo, ordea, indartu egin dira epe horretan. Gaiak izan duen bilakaera aztertu du Gorka Moreno soziologo irundarrak. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria da, 2011z gerotik.

2007-2008 urtera arte, azken hamarkadetako migrazio fluxu handiena jaso zuen EAek. Gero, jende askok pentsa dezakeenaren kontra, mendearen hasieran iritsitako migrante horietako asko bertan geratu ziren, baita krisi ekonomikoaren garaian ere. Orain, datu makroekonomikoei begira, bederen, hazkunde garaia dela esan daiteke, eta migranteen etorrerak gora egin duela baieztatu du Gorka Morenok.

Migranteen jatorriari erreparatuta ere, ziklo ekonomikoaren arabera ezberdintasunak izan dira. “Garapen ekonomikoaren fase horretan populazio latinoamerikarra zen gehien etortzen zena, nagusiki haien jatorrizko lurraldeetatik”, azaldu du Morenok. Krisi ekonomikoaren garaian aldiz, etorkin latinoamerikarren kopurua jaitsi egin zen, eta beste zenbait jatorri ezberdin agertu ziren: Pakistan edo Nepal, adibidez.

Jatorri magrebtarreko migranteak asko izan dira, aspaldidanik. Krisi ekonomikoaren garaian kopuru horiek mantendu egin ziren, baina nabarmenezkoa da, urte horietan, haien jatorrizko lurraldeetatik etorri beharrean, Espainiako estatuko beste lekuetatik iritsi zirela. “Batez ere, lan arloan ez zituztelako haien helburuak bete”, zehaztu du Morenok.

Orain, ekonomia hazkundean dagoen garaian, latinoamerikarrak dira nagusi, berriro, EAera iristen diren migranteen artean. Haien jatorrizko lurraldeetatik iristen dira, gainera. Datu horietatik atera daitekeen ondorioa begien bistakoa dela adierazi du Morenok: “Jatorri latinoamerikarra da testuinguru ekonomikoari gehien lotzen zaiona”.

### **Etorkinen inguruko aurreiritziak indartu al dira, krisi garaian?**

“Egia da etorkinen inguruko zenbait aurreiritzi eta estereotipo ere testuinguru ekonomikoarekin lotutakoak direla. Hala ere, gogoratu behar da krisi ekonomikoaren aurretik ere bazirela zenbait zurrumurru. Aspalditik zeuden gure gizartean, eta batzuk, krisiarekin handitu egin dira. Hor daude, adibidez, ongizate estatuari edo enpleguari loturiko zurrumurruak:

lana kentzera datozela, edo gizarte prestatzioez bizi direla... Testuinguru ekonomikoa txarra denean, zurrumurru horiek indar handiagoa hartzen dute”.

Aurreiritzi horien kontra, estatuko eta erkidegoko datu ekonomikoek adierazten dute migranteen kolektiboak gehiago sufritu duela krisi ekonomikoa. “Gizarte zaurgarritasunari edo pobrezia tasari erreparatzen baldin badiegu, agerikoa da hori”, baieztatu du Gorka Morenok. Bertakoen eta etorkinen arteko aldea handitu egin da azken urteotan. 2016ko datuen arabera, pobrezia tasa %4koa da bertakoen artean. %30ekoa, aldiz, etorkinen artean.

### **Aporofobia urteko hitz izendatu du Fundéuk. Pobrearen beldur al gara?**

“Argi dago klase sozialaren arabera bereizketak egiten ditugula. Beltzak patertan etorri beharrean, Getxora kruzero batean etortzen baldin badira, ezberdin ikusten ditugu. Baina esango nuke elementu arrazistak ere hor daudela. Zuri aberats baten edo beltz aberats baten artean, jende askok zuria nahiago du. Ez genuke arrazismoak duen indarra ahantzi behar”.

Datuak eskatzen dizkiote, sarritan, Ikuspegi, arrazismoari aurre egiteko formula gisa. Ematen dituzten arren, Gorka Morenok uste du datu hutsek balio eskasa dutela, aurreiritzien kontrako borrokan. “Bihotzaren edo tripen arloan kokatzen da aurreiritzia, eta ez garunarenean”, aipatu du. Zentzu horretan, xenofobiaren kontrako zenbait programaren balioa azpimarratu du Morenok: ZAS Zurrumurruen Aurkako Sarearen lana, edo Bizilagunak programa, SOS Arrazakeriak ek Gipuzkoan bultzatzen duena, bertakoak eta migranteak etxeetan bazkaltzera elkartzeko helburua duena.

### **Elkar ezagutzeari al dago gakoa?**

“Gero eta harreman handiagoa eduki, ezagutza handiagoa izango da, eta errazagoa beldurrei eta aurreiritziei aurre egitea. Indikadore on bat dago, gero eta bikote misto gehiago daudela. Horrek esan nahi du harreman hori existitzen dela, gero eta arruntagoa dela”.



### **Irun hiriaren kasua**

EHUren Leioako kanpusean lan egiten du Gorka Morenok, eta gutxitan hurbiltzen da, gaur egun, Irunera. Hala ere, ondo ezagutzen ditu bere jaioterriaren ezaugarriak, migrazioari dagokionez. XX.mendean estatuko beste erkidegoetatik etorritako etorkinek indar handia dute, pisu demografikoari dagokionez.

Atzerritarrei begira, Morenok argitu du hiriaren argazkia ez dela EAekoaren batez bestekoarekiko oso ezberdina. Gipuzkoako beste hiri eta herri nagusiekin alderatuta, aldiz, baditu ezberdintasunak: “Jatorrien aldetik, Irunen latinoamerikarrak dira nagusi. Gipuzkoako beste herri edo eskualde batzuetan, Goierri edo Deba aldean, magrebtarrak dira gehiago”. Baina Irunen bereizgarri nagusia, immigrazioari begira, bere kokapena da, muga izaera. Hori dela eta, Frantziar naziotasuna duen jendea dezente da. “Hori Euskadin oso arraroa da”, aitortu du Gorka Morenok.

Irungo testuingurua kontuan hartuta, gerta daiteke beste garai batean etorkin izandakoek, edo haien seme-alabek, jarrera ezkorrek izatea egungo migranteekiko. Gainera, gaur egun, etorkinen beraien artean elkarren kontrako jarrerak detektatzen ari direla azaldu du Morenok: “Ikerketak egin ditugu, eta ikusten da, adibidez, jatorri latinoamerikarra dutenen artean, askotan, oso jarrera gogorrak daudela magrebtarreko”. Egoera sozio-ekonomikoarekin lotu ditu jarrera horiek, Gorka Morenok: “Normalean, egoera ekonomiko ona duen jendeak jarrera baikorragoak edukitzen ditu. Lan merkatuan okerrago dagoenak eta ikasketa maila baxuagoak dituenak, aldiz, jarrera ezkorragoak”.

# Agirretxetarrek omenaldia jaso dute

Dultzaineroen hiru belaunaldiren errepertorioa bildu du Soinueneak

Dultzainaren doinuak lagundu izan ditu, urtetan, Irungo hainbat ekitaldi eta ospakizun. Bereziki ekainaren 29ko goizarekin lotzen du, jende askok, hirian. Bada, instrumentua Irunen zabaldu izana Agirretxe familiari zor zaio, neurri handi batean. *Agirretxetarrak, Gipuzkoako dultzainaren testigantza* disko-liburua argitaratu berri du Soinuenea Fundazioak, Irungo Udalaren parte hartzearekin. "Kolaborazio honen bidez, euskal musika tradizionalaren eta dultzainaren balioa azpimarratu nahi ditugu", adierazi du Juncal Eizagirre Kultura arloko ordezkariak. Gainera, martxoaren 4an, agirretxetarrak omentzeko emanaldia egin dute San Juan plazan, Meakako Adixkideak dantza taldeak antolatuta.

**"Euskal musika tradizionalaren eta dultzainaren balioa azpimarratu nahi ditugu"**

Juncal Eizagirre, Kultura arloko ordezkaria

**"Disfrutatzeke disko bat da, piezak osorik daude"**

Juan Mari Beltran, Soinueneako arduraduna

1925ean Gipuzkoako Errezil herritik Irungo Katea auzoko Loiola baserrira etorritako familia da agirretxetarrena. Garai hartan, jada, herriz-herrri ibiltzen ziren Joxe Mari, Joxe Manuel eta Alejandro Agirretxe anaiak. Grabazioak egin zituzten, eta dultzaina egile gisa ere nabarmendu ziren. Alejandro hil ondoren, beste bi anaiek Uranzu Dultzaina Taldea sortu zuten. Hurrengo belaunaldiko Konstantino eta Eugenio Agirretxek XX.mendeko bigarren erdian girotu zituzten Irungo kaleak. "Nik haiek ezagutu nituen, bereziki", azaldu du Juan Mari Beltran editoreak, Soinueneako arduradunak: "1989an Eugenioren garajejan grabazio saio luzea egin genuen. Hortik pieza asko hartu ditugu".

Bi belaunaldi horien grabazioak agertzen dira Soinueneak argitaratu duen diskoan. Eta hirugarrenarenak ere bai, Iñaki eta Eburne Agirretxek parte hartu baitute oraingoan. Aita eta osaba oso tarte txikian joan zitzaizkien, 2013 eta 2015 urteetan. Horregatik, oso pozgarria izan da, hirugarren belaunaldiarentzat, familiaren ondarea biltzen duen diskoa plazan ikustea. "Artean haiek bizi zirela, bagenuen material guzti hura biltzeko asmoa", onartu du Jose Luis Agirretxek. Izan ere, 2004an Juan Mari Beltranek *Dultzaina Gipuzkoan 1950 arte* liburua argitaratu zuen arte, sakabanatua zegoen agirretxetarren errepertorioa. "Liburu horrek informazio asko zuen, baina soinurik ez", aitortu du Beltranek.

Hori izan zen hurrengo urratsa. 2015ean, Soinueneak beste disko-liburu bat argitaratu zuen, Gipuzkoako dultzaineroen 56 piezarekin. Lan horren haritik, Agirretxe familiaren proposamena jaso zuen Beltranek, familiari propio eskaintako disko berezia prestatzeko. Emaizta interesgarria izan dela uste du Soinueneako arduradunak: "Disfrutatzeke disko bat da. Aurrekoan piezen bertsiotutakoak bildu genituen, oraingoan, berriz, piezak osorik daude". Liburuan familiaren eta musikarien ibilbideak, errepertorioaren inbentarioa, partiturak, grabazioen inguruko azalpenak eta beste zenbait bitxikeria topa daitezke. Testuetan, Jose Luis Agirretxek eta Juan Mari Beltranek parte hartu dute.

## Dantzak plazan, Meakako Adixkideak taldearekin

Agirretxetarren errepertorioaren parte zabal bat dantzarako da. Hori kontuan hartuta, omenaldia eskaini die Meakako Adixkideak elkarteak, martxoaren 4ko eguerdian, Irungo Txistulari Taldea-San Juan Harri elkartearekin eta dultzainero talde batekin elkarlanean. Sei urte daramatza Meakako Adixkideak-ek, hilabete bakoitzeko lehen igandean herri dantza saioak eskaintzen, *Irunen mutxikoak eta dantzak* ekimenaren baitan. Zabaltzan lehenengo, eta San Juanen, ondoren. "Gure ondarea mantentzeko ekarpena da, belaunaldi berriei helarazteko asmoz aurrera eramandakoa", adierazi du Joxemi Aranburu Meakako Adixkideak-eko presidentek. Agirretxetarrak omentzeko ekimenarekin bat egin du elkarteak, oraingoan.



**Folder**

Paper-dendarik merkeena  
**ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko aldea)  
www.kopiar.net  
kopiar@kopiar.net  
943 63 93 01



# Behetik gora dator Erroibide

Denboraldi gorabeheratsua gainditu du gizonen talde nagusiak

**Korapilatsua izan da denboraldiaren lehen erdia Erroibideko gizonen talde nagusiarentzat. Eragozpen handiak gainditu behar izan ditu Egeberrien aurretik. Urtarriletik aurrera, ordea, hobera egin du taldeak. Ligako azken txanpan sartuta, play-off postuetan sartzeko aukera izan dezake oraindik. Helburu hori du begiz jota.**

Denboraldiaurretik hasita, sasoi zaila izan da 2017/2018koa Estatuko Bigarren Mailako Erroibiderentzat. Joan den urteko taldetik, lau jokalarik besterik ez dute jarraitu. Horiek horrela, bigarren taldeko askok aurrera pausoa eman behar izan dute. Xabi Martinez izan da horietako bat. Gogoan du udara amaierako zenbait entrenamendutan lauzpabost lagun besterik ez zirela elkartu entrenatzera: "Gakoetako bat da denboraldiaurrea, eta aurten ez ditugu gutxienekoak bete".

Egoera horrek, entrenatzaile berriaren lana zaildu zuen. Sergio Martinek hartu zuen taldearen gidaritzza, aurreko denboraldian defentsan izandako ahultasuna konpontzeko asmoz. "Puntu asko jasotzen zituen taldeak, iaz", aitortu du Martinek: "Beste erronka handi bat zegoen, jokalariek konfiantza berreskura zezaten lortzea". Konfiantzaz harago, alabaina, elkar

ezagutzea izan zen lehenengo lana. "Kantxan nabaritzen zen alde aurretik elkarrekin jokatu gabeak ginela", adierazi du Eneko Santa Cruzek.

Horiek horrela, lehen hiru partidak galdu zituen Erroibidek. Egutegi zaila izan zuen, eta gainera, min hartuta ibili ziren hainbat jokalarik. Eneko Santa Cruz berak, denbora asko eman du lehiatu gabe: "Gogorra izan da, taldearen egoera ikusita, laguntzeko aukerarik ez edukitzea". Izan ere, partida batzuetan, sei jokalarik besterik ez ditu eduki Sergio Martinek eskura. "Eta hala ere, neurketa bat baino gehiago irabazi dugu horrela", nabarmendu du entrenatzaileak, barrez. Eztabaida ezina da egoera horietan taldea aurrera eramateko ardura hartu dutenen konpromisoa eta ahalegina.



**"Gakoetako bat da denboraldiaurrea, eta aurten ez ditugu gutxienekoak bete"**

Xabi Martinez, jokalaria

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com





**“Jokalarien konfiantza berreskuratu beharra zegoen”**

Sergio Martin, entrenatzailea

**“Txikitan saskibaloian hasi nahi izan nuenean, Donostiara joan behar izan nuen, Irunen eta Hondarribian ez zegoelako talderik”**

Eneko Santa Cruz, jokalaria

Argazkia: Estudio Gover

#### **Arnas berria eta hobekuntza kolektiboa**

Ligaren bigarren erdirako, taldekide berriak lortu ditu Erroibidek, hutsune nagusiak estali dituztenak. “Pibotearena, bereziki”, onartu du Martinek: “2.02m luze den jokalaria madrildar bat dugu orain, Estudiantes-eko harrobian aritutakoa. Lanagatik iritsi da Irunera, eta besoak zabalik hartu dugu”. Taldekideek gero eta hobeto elkar ezagutzen dute, gainera, eta pixkanaka, emaitzak hobetuz doaz. Play-off postuak ez daude urrun, eta sei neurketa geratzen dira, oraindik. “Askartzari presioa sartzea izango da gure helburua. Azken jardunaldietan irabaztea kostatu zaiola ikusi dugu”, azaldu du Xabi Martinezek.

Sergio Martinek uste du lau neurketa gehiago irabazi beharko dituztela, igoera fasean egoteko. Bostetik hiru jokatuko dituzte etxean, eta azkenekoan, Leioako Askartza areario zuzena hartuko dute. “Play-off-eko lehen partida izan daiteke hori”, adierazi du entrenatzaileak. Jokalariak animatuta daude, aurten pasatako komeria guztien ondoren, sasoiaren amaieran saria edukitzeko aukerarekin.

#### **Klubak goranzko bidea darama, pixkanaka**

Talde nagusia egonkortzeko Erroibidek duen zailtasun handienetako bat da juniorretatik senior mailara dagoen jauzia. Gainera, kadete eta junior taldeetan aritzen diren jokalaria asko beste kirolean ibili ondoren iritsi dira saskibaloira. “Hori nabaritu egiten da, senior mailara iristen direnean”, aipatu du Xabi Martinezek. Hala izan da, orain arte, futbolarak, eskubaloiak, piraguisismoak edo arraunak eskualdean duten nagusitasunagatik.

Aldera ezinak dira Real Unionekek, Bidasoak edo Santiagotarrak-ek hirian duten oihartzuna. Erroibidek hamahiru urteko historia besterik ez dauka. Beste elkarte horien aldean, jaioberrria da. Hala ere, ari da pixkanaka Irungo saskibaloientzat oinarri batzuk finkatzen. “Nik txikitan saskibaloian hasi nahi izan nuenean, Donostiara joan behar izan nuen, Irunen eta Hondarribian ez zegoelako talderik”, gogoratu du Eneko Santa Cruzek. Gaur egun zortzi talde ditu Erroibidek Irunen.



# Soratxipi (1.069m), ur banalerroko pagadietatik



**GORKA MARTINEZ**

[unpaisenmimochila.blogspot.com](http://unpaisenmimochila.blogspot.com)

**Denbora:** 3 ordu eta erdi (gelditu gabe).

**Distanzia:** 14,6km.

**Desnibela:** 1.189m.

**Tontorrak:** Soratxipi (1.069m) eta Munazorrotz (1.018m).

**Zailtasuna:** erraza.



Nafarroako Beintza-Labaien herrian hasten da ibilbidea, Doneztebetik Saldiasera doan NA-4040 errepidean. Parking txiki batean utzi ahal izango dugu autoa. Zementuzko pista bat irteten da bertatik, eta horixe jarraituko dugu, etxe ederrak atzean utziaz. Minutu gutxiren buruan, basoan murgilduko gaitu bideak. Pagoen itzalpean egingo ditugu hurrengo kilometroak. Leize baten ondotik pasatzerakoan, sasien artetik egin beharko dugu gora, lurrezko bide batetara ailegatu arte.

Borda txiki batera iristerakoan, gora egingo dugu, basotik irten arte. Harrizko bide bat topatu eta tontorretara bidean jarraituko dugu. Parking-etik irten garen momentutik bi ordu betetzen direnean, Soratxipi tontorrera iritsiko gara (1.069m). Lepora jaitsiko gara berriro, eta Munazorrotz tontorra igo ahal izango dugu, nahi izanez gero (1.018m). Munazorrotz eta Munaxketa (944m) gandar belartsuaren arteko lepotik, balizatuta dagoen bidexka bat irteten da. Tarte sigisagatsu bat gaingitu eta gero, pista zabal batetara ailegatu gara, zuzenean Beintza-Labaien herrira eramango gaituena, ibilbide biribila osatuz (3 ordu eta erdi).

Goiza mendian oinez pasa ondoren, aukera ona izan daiteke bazkaltzera Leurtzako urtegi hurbiltzea. Beintza-Labaiendik 10 minutu eskasera dago, autoz.



# Belaskoenea HH

Aurten Euskararen eguna ospatzeko 3, 4 eta 5 urtekoek ipuin polit bat asmatu dugu. Salvador Daliren koadro batean oinarrituta, "Muchacha en la ventana", guztien irudimena martxan jarri eta honako ipuin hau sortu genuen.



Behin batean bazen neska bat. Kristal izena zuen eta etxe handi batean bizi zen itsasoaren ondoan. Egun batean leihoa ireki zuen eta itsasoan belauntzi bat ikusi zuen.

Bertan Valeria ikusi zuen arrantzan. Valeria bazkaltzera gonbidatu zuen. Eta... zer prestatuko zuen ari zen pentsatzen. Agian, patata tortila. Ba, azkenean menua pentsatu zuen: lehen platera entsalada, bigarrena saltxitxak eta postre bezala gazta.

Bazkaldu ondoren, soinu fuerte bat entzun zuten eta leihotik begiratu zuten Kristalek eta Valeriak, eta badakizute zer zegoen?. Marrazo haundi bat, saltoka leihotik sartzeko. Valeriak eta Kristalek itxi zuten azkar leihoa baina marrazoak leihoa puskatu eta Valeria jan zuen. Kristal korrika ohe azpian sartu zen.

Marrazoa bere atzetik joan zen eta bere hortz handiekin ohea altxatu zuen. Kristal korrika eginez kalera irten zen eta oihukatu zuen: -LAGUNDU...!

Bitartean marrazoak salto egin eta itsasora bueltatu zen. Kristalen lagunak etorri ziren laguntzera itsasontzian. Leihoa ireki eta kristal itsasontzira igo zen marrazoa harrapatzera. Marrazoak itsasontzia ikustean korrika alde egin zuen. Bere atzetik joan ziren eta harrapatu zuten. Itsasontzian sartu zuten marrazoa eta Aquariumera eraman zuten. Aquariumean arrainontzi erraldoi batean sartu zuten eta orain hor bizi da oso pozik.

Hala zan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila lrungo plazan.

## EGONALDI MOTAK:

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako demenziak dituzten gaixoentzako egonaldiak
- Eguneko zentroak 365 egunetan irekita, GFA rekin hitzartuak, baita Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin (APA diru laguntza), garraioarekin Irun, Hondarribia eta Hendaiara

 **caser**  
residencial

CASER ANAKA

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER BETHARRAM

Zubieta Kalea, 161 - HONDARRIBIA 943 647169

# Euskaraz, Irunen barrena

## Bi ero

Bazen erotege batian ero bat. Eta ari zen libru bat leitzen. Eta libru orrek zittuen ostoa denak txurizan.

Gero esantzion beste ero bateri:

— Bira, libru hau leittu dut dena, eta ez tut entenditu deus ere.

Eta esantzion beste eruak, libura pixkat ikusi zue-nian:

— Nola entenditu b'ar duzu librua, aldrebes da-ta.

Hondarribiko Portuko Javier Intxausti Aizpiolea, 12 urteko haurrari jaso (1960-II-15). Josetxu Oronoz Portuko lagunari ikasi zion. (El Bidasoa, 1960-III-12)

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga**  
Euskaraz, Irunen barrena

## Hirubide DBH1

### Nire Eguneroko Literarioa

2017/11/13 (23:47 P.M.)

Kaixo Justiniano.

Gaur bigarren aldiz idazten dizut. Bai, arraroa da, baina beharra daukat. Goizeko kezka kontrol bati buruz zen, baina hau askoz inportanteagoa da. Asteak daramatzat kezkaturik. Bihar piano kontzertua daukat, eta ez dut uste lo egingo dudarik. Normalean lasai egoten naiz, baina gaurkoa desberdina da. Biharko kontzertua nire bizitzako kontzertua da. Gaizki jotzen badut, ate guztiak itxiko dira. Pianoa jotzen hasiko nintzateke, baina ordu hauetan, nire gurasoek jipoituko nindukete.

Leihotik begira nago, izarrak eta konstelazioak desberdintzen. Zorionez, ez dago hodeirik zeruan. Nire mahaiko lanpara piztuta, eta lo ezinik gabe eserita nago idazmahaietan eserita. Gauean beti pentsatzen nago, eta ordu hauek arte egoten naiz hemen eserita, normalean koaderno batean idazten. Urduri al nago? Bai. Ez\_nuke ordu hain berandu arte gelditu behar. \_Eta. Inporta zait? Ezer ere ez.

2017/11/14 (10:28 a.M.)

Gaurko kontzertua gero eta hurbilago dago. Eskuak izerditan blai ditut, eta hotz ikaragarria sentitzen dut nire barnean. Zerqatik hain urduri naiz jartzen? Gustatuko litzaidake hau guztia azkarrago pasatzea, horrela ez izatea. Izerdia garbituz gero, herriz ateratzen da. Bi orduetan kontzertua daukat. Ez dakit nola joko dudan, nire eskuak ez baitira gelditzen. Berriz leihotik begira, baina orain dena hodiekin. Urduriago nago, eta ezin naiz saiatu praktikatzen, ez naizelako kontzentratzen. Niregan daukadan mesfidantza hau guztia ez da ezertan bihurtuko kontzertuan egoterakoan, nire buruko pentsamendu guztiak iluntasun gris bat bihurtuko direlako. Eskuak pianotik irristatuko dira, eta minutu erdi batean dakidan guztia erakutsi beharko dut.

Andoni Carrascosa  
Hirubide BHI 2.D



# bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com





ANE ENCABO, gitarra jotzailea:

## “Dirudiena baino askoz zabalagoa eta aberatsagoa da gitarraren mundua”

Bi urte besterik ez zituela, gitarra jotzen ikasten hasi zen aita. Orduan, jada, hariak laztantzen hasi zen Ane Encabo (Irun, 2000). Gaur egun, Musikene Euskal Herriko goi-mailako musika ikastegian sartzeko probak prestatzen ari da. Iaz, José Tomás-Villa de Petrer Nazioarteko Gitarra Lehiaketa prestigiotsua irabazi zuen, Alacanten. 2016an Euskadiko Musikari Gazteak saria eman zioten. Musikari ibilbide oparo baten lehen urratsak izan daitezke.

### Musikan hasi zinenean, argi zeneukan gitarra hautatuko zenuela?

Baietz esango nuke. Egia da amak esaten zidala zeharkako txirula aukeratzeko. Izan ere, orokorrean, gitarrak ez du fama onik. Jende askok pentsatzen du akorde batzuk jotzea besterik ez dela, lagunekin, parranda giroan etab. Nire amak ere hori pentsatzen zuen hasieran.

Ezagutzen duzunean, konturatzen zara musika klasikoan gitarrarentzako errepertorio izugarria dagoela. Dirudiena baino askoz zabalagoa eta aberatsagoa dela gitarraren mundua. Amak, hala ere, solfeoko irakasleari eskatu zion nire ideia hori burutik ateratzeko, baina berak erantzun zion uzteko nahiago nuena aukeratzeko.

### Ikasle ona izan zara, musikan eta eskolan ere bai. Eragina izan du?

Bai, musikariak langileak eta diziplinatuak gara. Hori bizitzeko beste arloetan aplikatzen dugu, eta nabaritzen da.

### Goi mailako ikasketak ere musikaren munduan egin nahi dituzu, dena den. Zure lanbidea izan dadin nahi zenuke?

Bai, gitarra irakasle izan nahi nuke, eta ahal dela, kontzertuak eman eta munduan zehar bidaiatu. Gustatzen zaidanaz disfrutatzea da nire ametsa.

### Gogorra da Musikenen sartzeko proba?

Bai, 30 minutuko errepertorioa

prestatu behar dut. Bi plaza besterik ez dituzte eskaintzen, eta estatu osotik eta atzeretik aurkeztzen da jendea. Proba bikaina egin beharko dut egun horretan, aukerak edukitzeko. Urduri samar nago horregatik. Baina tira, bestela badaude beste aukera batzuk, Iruñean edo Zaragozan, adibidez.

### Gaur egun zeintzuk dira zure erreferente nagusiak, gitarraren munduan?

David Russell oso ona da. Baina batez ere emakumeak aipatuko nituzke, Stephanie Jones, Mabel Millán, eta euskaldun bat ere bai, Andrea Gonzalez. Emakumeak itzalean egon izan dira urtetan, baina pixkanaka martxa hartuz goaz.

### Zein trebetasun behar du gitarra jotzaile bikain batek?

Teknika ona eta musikaltasuna, obra bati adierazkortasuna emateko gaitasuna. Musikari norberaren ukitua ematea, azken batean.

### Maila handia du Irungo kontserbatorioak, musikari onak atera izan dira.

Bai, oso irakasle onak daude. Ana Ayneto da nire irakaslea, eta asko ikasi dut berarekin. Harreman ona dugu gainera.

### Klarinetea jotzen duzu, bigarren instrumentu gisa. Zer ematen dizu?

Oso desberdina da. Hasteko, putz egitea asko kostatzen zitzaidan, ikasi arte. Orain beste aukera batzuk ematen dizkit, kontserbatorioko bandan jotzea, adibidez.

“Langileak eta diziplinatuak gara musikariak”

“Obra bati adierazkortasuna emateko gaitasuna garrantzitsua da”



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Web gunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## Graduondoko ikasketak egiteko bekak 2018-2019

Iberdrola Espainia bekak, Graduondoko ikasketak egiteko 2018-2019

**Arloak:** Ingeniaritza, Informatika, Matematika, Big Data, Informazio eta Komunikazio Teknologia, Giza-zientziak, Zuzenbidea, Administrazioa eta Enpresa Zuzendaritza eta Marketing Digitala.

**Tokia:** Espainia, Erresuma Batua edo Estatu Batuak.

### Betebeharrak:

- Espainiako nazionalitatea izan edo Espainian bizilekua eduki.

- Gradu edo lizentziaturako titulu unibertsitarioa izan edo azkeneko kurtsoa egiten aritzea, 2017-2018an.

- Ingeleseko ziurtagiria izan.

**Iraupena:** Urte bat gehienez.

**Izena emateko epea:** 2018ko apirilak 2

**Informazioa gehiago:**  
[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)



## Besarkadak. Altzariak zaharberritzeko...

Altzariak zaharberritzeko... BERRERABILI! Trebeziak partekatuz

**Proposamena:** Ekar ezazu biziberritzeko altzari bat: Ispilu bat, kaxa bat, lanpara bat, aulki bat...

**Eguna:** martxoak 21

**Ordua:** 17:30

**Lekua:** Lakaxita (Anaka, 20 - Irun)

**plaza mugatuak!!!**

### Informazioa eta izen-emateak:

[besarkadak@emaus.com](mailto:besarkadak@emaus.com)  
- Tlf: 943 367 534



## Gazte-txartelaren 2018ko pack-a eskura duzu: deskargatu zure mobilean

Gazte-txartelaren 2018ko pack-a zuretzat prestatu dugu, eta jarduera interesgarri ugari proposatzen dizkizugu bertan: aisialdi, kultura, kirol... abantailak, 2018 osoan aisialdiaz goza dezazun, gutxiago gastatuta.

## IGazteren Buletin Elektronikoa

Egunean egon nahi al duzu enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntarioriaz buruz???

Izena eman ezazu <http://buletin.irun.org/eu/igazte> estekan IGazteren buletinean, eta ostiralero jasoko duzu zure postan!

Geldeiguzu!

Interesatzen zaizun guztia zure eskura !!!





# Martxoak

## 22

### Krea Bidasoa 20X8

Krea bidasoak: Ekintzailatza, Berrikuntza eta Sormena

Badator Krea Bidasoaren X. edizioa. Gerturatu zaituz martxoaren 22an Ficoban zain izango dituzun hitzaldi, tailer eta berritasun teknologikoak ezagutzera.

9h00-10h00: Espezializazio Adimendunaren estrategiak Euskadin-Basque Industry 4.0, Amaia Martínez Muro, SPRI.

BCSC, zibersegurtasunaren elkargunea Euskadin. Eriz Lopetegui, Basque Cyber Security Centre.

10h00-11h00: Plataforma digitalak, voladd cloud izeneko cloud-a erabiliz enpresa txiki eta ertainen eskura dagoen negozio-eredu berria. Jose Jorge Estrada, Kevo.

12h00-13h00: Datuen analitika: datua, enpresa adimenduaren lehengai berria. Kenneth Lobato, Idom Consulting.

9h00-10h00: Nola sortu teknologia berrien enpresa bat... teknologiarik, aditurik eta bezerorik gabe. Aitziber Eizaguirre, Tumaker

10h00-11h00: Edukien marketina eta Copywriting. Bilakatu bezeroak erabiltzaile hitzen bitartez. Enara Franco. Ramón Revesado, Adimedia

12h00-13h30: Etorkizuneko negozioak sorraraziko dituzten elikadura eta gastronomia joerak. Mariela Fernández eta Silvia Rozas

11:00h-12:00h: Kafea eta "Ruta Connect Innovation Bai!" Networking

15h00-16h30: Inkubagailua: negozioen espres sorrera. Ikasi errekor denboran negozio bideragarri bat garatzen. Ander Rozas eta Susana Fernández, Baiba he Kitchen

17h20: Powered by PechaKucha 2018. Proiektu berritzaileen aurkezpen dinamikoak PechaKucha formatuan: 20 irudi eta 20 segundo irudiko. Harritu egingo zaitu!

18:30: tXin-tXin KREABidasoaX



## 16

### Biolin entzunaldia

**Zer:** Irungo Udal Kontserbatorio eta Musika eskolan biolin entzuladi bat egingo da martxoaren 16an.

**Ordua:** 19:00etan

**Lekua:** Irungo Udal Kontserbatorio eta Musika eskolan Mendibil, 17 – M<sup>o</sup> Luisa etxea

**Prezioa:** Doan

## 17

### Hitzaldia

**Zer:** Alcohólicos Anónimos eta Al Anonen eskutik "El alcoholismo en el entorno familiar" hitzaldia.

**Ordua:** 17:30ean.

**Non:** Amaia KZ hiltzaldi aretoan Pío XII

**Prezioa:** Doan

## 23-25

### Italiako zirkua "Salvaje"

Italiako Zirkua "Salvaje" zirku ikuskizuna aurkezten du, gatibu burreak lapurtzen dituen bidai askatzailea. Giro irekia, non dena posible den. Kolore biziko, edertasun eta erritmo halo batean bilduta, harridurararako jaiotako pertsonaiak plazaratuko dira, izaki ederrak akrobazia harrigarriak lortuko dituztenak.

#### Ordutegiak:

- 23an, estreinaldia 19:00.
- 24an, bi saio, 17:00 eta 19:30.
- 25ean, bi saio, 12:00 eta 17:00.

Aparkalekua doan.





# CIRCO ITALIANO

DESDE 1958



Familia osoarentzako ikuskizuna

# IRUN FICOBAN

MARTXOAK

# 23

TIK

OSTIRALA  
19:00  
DEBUT 10€  
15€ VIP

LARUNBATA  
17:00  
19:30

IGANDEA  
12:00  
17:00

# 25

ERA

Orrialde hau zirkuko leihatilan erakutsita,  
VIP Guneko edo AURREKO sarrera bat erosiz gero,  
ezaugarri berdineko beste bat jasoko duzu DOAN.

EZIN DA BESTE PROMOZIOEKIN ERABILI.  
SAIO GUZTIETAN ERABAIL DAITEKE LEHENENGOAN  
IZAN EZIK.

# 2X1

Sarrerren salmenta:  
Zirkuko leihatilan saio bakoitza baino bi ordu lehenago

Eskaintza handiak Online  
[www.ilcircoitaliano.com](http://www.ilcircoitaliano.com)

622412860